

Pierre LAFITTE jaun agurgarriari  
Ustaritz

Ene adiskide maite: Arpegiz ez zaitut ezagun, bai osteria idatziz, zure liburuastan aipat irakurria bai-nozu. Arpegiz be ia ezagutzen zaitut Euskaltzaindiak azkenengoz Donostian izan eban batzarrean; an nintzan, ba, baña dei nai-ta-ezko bat izan neban Bilboratzeko, ta nire nai leiala ezin bete. Besteren baten izan bearko.

Alan be, baleiteke onezkerio zure belarrietara be eldua izatea esku artean dakartan lanaren barri. EUSKAL MILA OLERKI ONENAK batzen diar-dut. Lan ori oso surrerata daukat; xeetasun batzuk izan ezik, beste guttia amaitua dot. Gauza ederra benetan. Zuk be ba-dituzu era ta antzeko lanak, Eskualdunen Loretegia, Kantuz, Errepikan, ta abar. Ba-dakizu, ba, zelako lana dan. Zenbat poz eta atsegin artzen dauan gure biotzak, asaba zarren esan, supita, atsotitz, biozkada ta adimen-zitu ta ale sakon gozoak jasoz.

Lan au argitarra orduko ortik osteratxo bat egiteko asmuz nabil; baña bien bitartean, mesedetxo baten eske natorkizu. Arazo zoragarri au ez da noski batek bakarrik oscotu bear dauana, askoren artean baño. Ona zer-gaitik mesedetxoa laguntasun au.

Iru zatitan banatu dot neure lana: 1) OLERKI ZARRAK (lau sail emen: maita-leloak, irri ta aldarre, gudu-otsak, Jainkotia); 2) LAU GIZALDI: XVI, XVII, XVIII, XIX; 3) GURE HERIA, au da, 1900 garrenean asi ta gaur arteko olerkarien neuritzik onenak. Guztiz mila, ez geiago ez gitxiago.

Olerki zarretan orkoak zarie txapeldun, bai Lapurdin, bai Zuberoan bai Be-Naparroan; bikain zoragarriak oro. Baita gerora be, asko ta onak. Ba-dot sail galarria: Etxepare, Oihenart, Etxeberri, Etxe-hun, Hiribarren, Becas, Elizalde(Zerbitzari), Zaldubi, Decrpt, Mendibil, Zelhaba, Gibert, Artxu, Goietxe, Ibergaray, Elizanburu (Sababerri), Berjes, Beñat, Landerrretxe, Otxalde, Ligéix, Dr. Larralde, Harluxi (Darrupe), L.Leon, Ibarrart, Mañex Etxamendi, Ithurralde, Argibide, Barbier, Bordaxuri, Mendiage, Ttipi, Paristarra, Nabarro, Xalbador, Aintzibure, S.E., Oxobi, Dogdson, Vinson, Duvôtsón, Garazi, Erdurre, P.Zaharriburi, Piarres, Zedarri, Joantegi, M. Elizanburu, Erramuzpe, t. a.

Ta zuri eskatzen dautzudan mesedea auxe da. Olerkari bakotxaren atarian xeetasun oneik ezarri nai neukez: Noiz ta nun jaio ta il zan, zer ikasi eban, zer argitaratu, ta abar; au da, zeuk Eskualdunen Loretegian jarri zenduan antzera, zertxobait, irakurlearentzat surpergai. Askorenak da-ditut, baña beste askorenak ez. Eta ortik gai oneitan jakitunen zarean ezkerro, lagundu egidazu, arren, arazo onetan. Eskerrez nagokizu oraindixik.

Eskualdun Kantaria Dr. A. Goyenetxek argitaratua esku artean dot; bertan ditugu izen oneik: Dr. Larralde, Elizalde, Harluxi, Harrazpi(Becas) Mañex Etxamendi, Nabarro, Aintzibure, Xalbador, Manderretxe, Argibide, Darrupe Harluz (bardin eta Harluxi?), Paristarra,. Baita KANTUZ be, zeuk argitaratua, oso ederto noski; emen dato, Mendiage, Zerbitzari, Ithurralde (zeu eta zaitut, P.Ithurralde Kantuen egilea?), L.Leon, Begnat, (D)Ibarrart jaunatzaz zeuk egindako lana emen dot, Otxalde (Joanes Oxalde bat eta?), Bordaxuri, Ttipi, S.E.; ba-ditut euron beste olerki batzuk be GURE HERIA' tik jasoak, baña euretzaz xeetasun gitxi. Gaurko naikoa oneikaz.

Urrengo baten itanduko dautzut oneitzaz: Artxu, goietxe, Ibergaray, Berjes, Garazi, Erdurre, Zaharriburi, Piarres, Zedarri, Erramuzpe, t. a. Oneik batzuk GURE HERIAN dato. Ba-dira or bertsolari punterengoa be: Xanxo, Arrosagarai, Manex Apezena, Zubiat, Etxarren, Goianetxe, Larralde, Kapdebille, Mattin Irabola, Ligeix, t. a. Ba-ditut guztzi onein xeetasun asko, batez be, UN PEUPLE QUI CHANTE J.Ithurriague jaunaren liburuan.

Mila esker barriro zeuk bialtzen daustazun guztiagaitik.

Baita gura neuke jakin Oxobi jaunaren zuzenbidea.

Baita gura neukez euki zuere Errepikan, Eskualdun xorittoen Kantuak, Monzon jaunaren URRUNDIK (ba dozu, bestelan ez), Murtuts eta bertze, P.Ithurraldea, ta zeuk zuzentzen dozun HERRIA asterokoa. Antxifiatik nengoan arpidetzeko; ona gure zuzenbidea: PP.Carmelitas, Larrea-Amorebieta-Bizcaya-España. Liburu orreik ordaintzeko-ta, aituko gara.

Gaurkoz naiko. Agur, ba, ta agindu nai dozuna,

*Oñaindia tar jaka baina*

*Kadmeldaria*

JHS

P.C.

LARRIA-AMOREBIETA' tik, 1954-II-2

Piarres LAFITTE jaun agurgarriari  
Uztartzen

Agur, ene Aita maite: Ia ilabete ortik alde nebalat, oraindik be ixil-ixil; onezkeo nigatik gaizki esaka zaukadaz, baiña parkatu, oso lanpetuta ibilli naz, ta ezin nai neban guztia egin. Gaur, ostera, or doakizuz letratxu oneik, poz ta eskarron-ezaugarriz bete-beterik.

Or igaro **nebazan** egunak ez ditut errez aiztuko; ain leku zoragarian eta ain ondo tratauta, gela ona, jateko ona, lagun arras onak, beti be irriparre gozoaz ezpanetan zutela. Eskerrik asko guztiai, zeuri, Erretore jaunari, Jean Batista Bascaus erakasle jaunari, egunero Meza esateko jantziak uzten eustazanari, ta abar. Onezkero zure eskuetan izango dira, lengo baten igorri neutzuzan Iru EGUTEGI: bata zeuretzat dozu, bestea Erretore jaunarentzat, eta irugarrenra Jean B. Bascaus frakaslarearentzat. Zelan edo alian neure eskar ona irurai batez be erakusteko.

Etxerunzkoan, Baionan egon nintzan HERRIA'ren irarkoletan; an ibillni nintzan zure billa, baiña ez zindudazan aurkitu. Gaua ango Seminari nagusian emon neban; an be ondo baiño obeto artu ninduen. Gero Miarrrite'n eta Donibane-Loitzun'en egon nintzan gure aigintari jaunakin. Donibane'n ordaindu neban, Txomin Onaindia jaunari, urteko HERRIA'ren arpidea. Onezkero bidaliko eutzun nik emon dirua. Zuzenbidea aldatu Amochareta ordez AMOREBETA. Bestela, ederk ieltzen yat astero- astero.

Olerki-liburua ba-doa aurrera. Itzaurrea egunokaz amaitu dot, eta baimenak lortutakoan berealaxe eroango dot irakolara. Ta laster izango do-gu liburu eder au nasai-nasai irakurteko erea. Artu nebazan L.Leon apez jau-nak igoñritako alegi-pilloa. Eskerrik asko, ikusten dozunean.

Agur, lagun maite, ta agindu Jelpean beti,

Aita Santiajs Onaindia



PP. CARMELITAS  
EIBAR (Guipuzkoa), 1954-XI-13'an  
TEL. 466

†  
J. M. J. T.

PAX CHRISTI

P.Lafitte Apez agurgariari  
Uztaritze'ra

Agur, ene lagun maite:

Ez zaitut ahantzia; ez orixe. Luzaro egona naiz zuri zerbaiz idaztekotan, xeetasun batzuk eskatuaz, baiña asti gutxi, alajaña.

Gaur, ordea, emen duzu nere au. Ba-noa aufera nere lan aundian: "Mila euskal olerki eder" liburua laster dugu amaitu. Oraintxe diardut gure mendekoakin, or aldekoakin noski. Mesede tipi bat eskatzen dizut orai. Etxahun gaztearen olerkirkik ez dut batere, zuk Errepikan argitara emanniko labuña ezik. Besterik ez al dduzu or? Eta bere bizitz-befirik, nun sortu ta abar? nahi nituke. Ezer jartzen ez baldin badut, samurtu egingo zait...

Eta beste oiek, gure astekari eder HERRIA'K egindako batzaldira aurkeztu ziranenak? Pozik artuko nituzke, bai eta bilduman ezafi e-be. Bidaliko ote? Áren, ar zazu ofen ardura; oneik igoři: Bidegain, Itzaina, Amerikanoa, Maitia apeza, Oxandabaratz, Mařuxket Amerikanoa, Soulé ta Soudre, Bakotxaren bat bakařik, eta labufenak. Baita euren bizitz-xeetasun zerbait ere, ba-dakùzu beintzat. Eta beste ori, Herria'n idazten duan Pimpili ori nur dugu? Ofen zerbait eta nur dan igortzen ba'didazu, milesker biotzez

Egubeři-alderuntz salgei izango da liburu au, ta ale bat igořiko dizut berealaxe. Agur, ba, bitartean; zeurearen zai naukazu,

*Ondarriak eta Lakabe*

J.M.J.T.

Lafea'tik, 1962-XI-30'an

Pierre Fafitte apez jaun onari  
Bai on a'ra

Agur, ene adiskide maite!

Emen duzu au, lendabizi zuri esker ona erakutsi naiesen. Oin ederki ibili giñan ortik joan udaran! Eta zure maite-era-kutsiak azkengeak izan ziran guretako. Milesker guziagatik, merezi bait-duzu. Bai ta eskefak eta zorionak eman beaÑean naukazu zuk txintxo da-gizun lanagatik, ots, HERRIA'ren bitartez dagizunagatik. Mugaz emendik ere gogoz irakuntzen dugu asteroko txanbelin ori. Segi ofela.

Bai ta inguruaren dituzun oiek suzperatu ta sustatu ere. Lan edeÑa noski! Or ba-zerate lagun talde galanta euskeria alde lan egiteko, or izan giñanean ikusi genuanez. Oso ederki. Gure deputaduak ere zerbaÑit osatuko Paris aldetik. Ez dira mutil kaxkaÑak! Ba guzion indak bildu ta alkarterrik zerbaÑit dagigun iltzear daukagun izkera maite au bizi ateratzeko, batez ere gaurko zigofaldil ertun ontatik.

Emen ere ba-da kezka ta egon-eziña, gure gauza ta arloeri buruz. Ezta ezaugáfi ta zantzua txafa. Bego luzaro ofla, ta kez-kak ba-dakizu zerbaÑit dakar: ur geldiak atsa; ibili dabilenak, ordea, e-gária iltzen digu, balio dulako. Aste ontako zenbakian argitara duzu Bil-boko gazte oien idazki ori; nire ustez, ez du batere gafantzik eztabaÑida ofek. ArestiÑk berak naÑ duna esan oi du, ta iñork erantzuterik laket ez. BaiÑa eztabaÑida sortzean, iñori ukutzen dakigun bezala, iñoren ezten-kadak eramatzen ere jakin bear. Ta ofek ez daki nunbait. Ofek egin bear duna da euskeria obeki ikasi, aren ezkutu guziekin jabetu. BaiÑa ez du o-lakorik egingo, arlo te xamaÑa dalako: beti eztabaÑidan ekin beaÑean, lan egin bear luke goxo-goxoki.

GaiÑerantzekoan, emendik ere lan ba-dagigu, zerbaÑit poxi bat bederen. BaiÑa gizon bat daukagu ixil-zilo: gure ORIXE maihua. Ezazu iñirik ezpain-puntan! Maixu dugu bai gauza askotan, bai ta maxio-sailean ere. Ta aren oroitzapena aantz-leizan utzi nai ez-ta, ona zer as-mo, xede edo erabaki artu dugun emengo euskaltzale talde batek: aren biografi antzeko bat osatu. Azi samaÑa. Ona nolatzen: 1) Aren bizitza (bere loba Aranalde'k), 2) Orixen gizon (Etxaniz), 3) Idazle (Andima), 4) Euskeratzai-le (Gaztelu), 5) Izkera-zale (M.Oyartzabal), 6) Jakinzale (Zaitegi), 7) Euskal-tzain (Mitxelena), 8) Olerkari (A.Onaindia), 9) DoiÑu ta olerki-neurkera (A.Ikuona), 10) Lizardi ta Orixen (Labayen), 11) "Euskaldunak" (Mokoroa), 12) Itzor-kunlari (A.Muxika), 13) Mistiku (A.Lino), 14) Aren barne-bizitza (A.Villasante), 15) Maxiolari (P.Lafitte), 16) Azken-iritziak (Zeleta). Zer deritzaizu?

Izentatuko auek gerto dira beuren lana osatzeko. Eta zuk? Zuk ere, nik uste, egingo didazu zeurea. Ezta alan? Zuk ongi daki-zunez, maxiolari poÑokatua izan genun Orixen. Bai jesuita zala, gero Buzko Gastedikoekin Bilbao'n, Euskaldunak idaztean, Kitzol jaunarekin, or bizi izan zan aldian, Aita Ufutia, Madina ta abar aizatu zitun, baita Euskal-tzain beÑiak eta abar. Zuk ongi ezagun zenun. BaiÑa batez ere GERNIKA'n eta EUKO-GOGOA'an agertzen digu maxio-zaletasun ori (ezin deitu noski za-lekeria). Lan ederÑa egingo duzu, alderdi oftatiak Orixen zanari begiratuz.

Lanaren luzeera: sei-zortzi folio tarte birekin. E-pea: iruÑabete. Ta gero lanak neuri igoÑi.

Eta beste lan ura? Orko olerkarien lanik oberenak? Ez aiztu ofekin ere. Edo esan neuri nun dauden, eta neronek egingo dut aldaketa.

*Kontseilko agintzaren zentrua, Hitz Oinarriak*

J.M.J.T.

Larrea'tik, 1963-VI-11'an

P.Lafitte apez jaunari  
Baionan

Ene adiskide maite:

Ar zazu lendabizi eñe agur bero samufa, merezi duzulako. Osasunez ba-dakit ongi zabiltzana ta euskeraren aldeko langogoz ñso poñokatua. Ezta artobero usaia: txalogafi zera egiazki.

Ig-zko Egubefi aufetik idatzi nizun mesede bat eskaturik. Egiña ote duzu? Mesede ori au zan: Orixo zanari buruzko lantxo bat, bere omenaldi-liburako. Liburu au ogei batek, euskal idazlarriak onenak osatuko dute. Zuri bezala idatzi nien aieri ere, ta batzuk erantzun didate, beste batzuk ez oraindik, baiña ba-dakit lanean ari dirana. Eta egunak aufera dijoazki, ta datofen buruilarren azkeneruntz, Mikel donearena jai inguruan, Tolosa'n jai eder bat antolatu nai dute Orixo goretsei ta aren oroitzapena piztu-aziaz. Garai ortarako nai genuke liburu ori argitara ematea, lengoan Labayen jaunak esan zidanez. Igoi ei-dazu, beraz, egin duzuna. "Orixo maxiolari" zan zure lepo utzi nuen arloa.

Beste mesede bat. Ba-dakit oso lanpetua zabiltzla, baiña egingo didazu au. Enbeita'tar Kepa oleskari audiaren bertso-bilduma egiten ari naiz, ia bukatua dut: 364 bat olerki guztiz. Orko sari-keta baterako ere egin zitun bertsoak eta saria irabazi: gudararte etxean zeukan diploma bat "Baztan'go ujola" zala-ta egin zuen olerki bategatik irabazia. Ez tut olerki au iñundik ere aurkitzen. Baiña aztafenik: Euskaleñiaren alde'k onela dakar (obeki Euskal-Esnalea'k) bere 1914'ko garagarilaren zenbakian, 147 grn. ofícialdean: Izneurti-batzaldia: Abadie jaunak asi zituan euskal jaiak aufera eramateko izendatua dagon batzafeak, agertu erazi ditu aurtengo izneurtuen batzaldirako gogoan eduki bear diran arauak: Ona emen: 1) 1914'ko batzaldia Iholdi urrian egingo da, uri arta-

ko zaindari-jaiak izan diran egunetan. 2) Izneurtuen gaia au izango da: 1913'ko ujolak Euskal-Erriaren (Baztan eta Nive-ibafetan). Izneurtu oek bidaldo du dira Batzañaren etxera, Bayonne, rue Bougneuf, 69, datofen dagonilaren 15 baino lenago. I-rurogei lefoz gora eztitzte izan bear izneurtiak."

Auxe da or irakurten dana. Ta Enbeitatik irabazi zun saria; bere etxe-an bai zeukan ofen diploma polita, aren emazteak esan zidanez. Emengo eguneroko ta sldizkariak aztertu ditut Aita Lino Akesolo, Euskaltzain bezia lagun dutala, buñia eztugu ofen lofatzik ere izan. Orko Eskualduna'n argitaratu zan apika? I-kusi egizu, mesedez. Eta or arkitzen baldin ba'duzu ta neri igofi, biotz-biotzez eskertuko zaitut. Baita ofela egin ezta ere...

Zurearen zai naukazu, maite.  
Zu ezpaitzera onerantza etortzen, neroni ofa (datofen aguztuan edo) oferaiño iritxi arte.

Xamurki besarkatzen zaitu,

Aita duaindia

JHS

Larrea-tik, 1975-12-15 'an

P.Lafitte jaunari  
Uztaritze

Agur, adiskide maite:

Eguberri egunak gain dirala-ta, ar zazu nere zorion agurrik kerritsuena. Osasuna ta pakea opa dizut batez ere egin oietan. Ondoren, mesede ttipi baten esker natorkizu, egingo didazun itxaropen goxoz.

EUSKAL LITERATURA ba doa aurrera: laugarren alea inprentan dut; baina zerbaite falta zait oraindik, mugaz or aldekoen xeaztasun atzuk. Auek, adibidez:


1) Daranatz, noiz jaio zen ezin dezakegu jakin?

2) 1936 aurretik or azaltzen ziran eguneroko ta aldizkarien berri pixkat euki nai nuke, aipatzeko aina beintzat: "Gure Herria", "Eskualduna" ta abar. "Herria" geroagokoa dugu, ta orren aipamena, zeatzagoa, bostgarren alean egingo. Zeuk dakizun bezala eginda, oien berri pixkat nahi nuke aipamen ori egiteko. Bakoitzetik kuartilla bat, esaterako. Zeuk dakizuna bakar-bakañik.

Ale ontarako ortik dauzkadanak austzek dira: Daranatz, Pedro Garmendia, George Lacombe, J.Jaureguiberri, Albert Leon -noiz jaio ote zan au?-, P.Lhande, H.Gavel, J.Ithurriague, J.Etxepare, J.Elizalde, Leon Lassalle, Leon Leon, Mons.Mathieu.C.Tournier, S.Arotzarena, P.Duhour, Abate Xorko, "Espil", Dominique Saubelet... Besterik, 1905 baino leen ja iota?

Igandez Donibane-Garazi'n izango naiz. An elkar iksuko Biotz-biotzez,

*Aita Jaunari*



JHS

Larrea, 1979-1-26

Aita P.Lafitte agurgarriari  
Ustaritz

Agur, adiskide on!

Emen duzu beinola erran nizun liburua, V-garren  
EUSKAL LITERATURA alea. Berton daukazu zure bizitzatik eta euskal lanetatik  
zerbait; merezi zenun aina ez, baina tira zerbait!

Oari VI-garrena idazten ari naiz. Eta beinola zuk erranz  
gogoratutik, mesede bizi bat eskatzen dizut apalki. Hor inguruko idazleak ere  
merezi dute zabalki adierazten ematea: Lapurdiko, Baxenabarreko ta Zuberoenak.  
Ez ditut gehiegi ezagun, tamalez. Ordeigo mendekoak, 1904- ik 1926-raiñoknak sar-  
tuko ditut; hori da behintzat mire asmoan. Hauek dauzkat aukeratuta: J.-B. Ler-  
txundi, P. Bordazarre, P. Narbaitz, Marzelin Hegiapal, G. Eperre, J. Babaki, J. Alzomendi,  
P.A. Duni, P. Larzabal, Eguenio Goienetxe, André Osipital, S. Erramuzne, Iratzeder, Fer-  
nando Aire, T. Ultrurri, M. Labeguerie, P. Charriton, J. Etxeberri, E. Bidegain, Andiaza-  
bal, J.G. Haritschelhar, Etxekapar, J.P. Mirande, urte hoiен berruan sortuak.

Gehiago ez ote ditugu? Hau zure eskuetan jartzen dut.

Baita jakin nahi nuke "Herria"-ren ixtonia guzia ere. Lehenagoko Eskualduna, Gure Herria ta ohiena, egin nuen zerbait, baina zer gutxi noski. "Herria" bizitza luzekoa degu, eta eder-ederra. Merezi du, beraz, aipamen luze bikaina. Badira bertze batzuk ere, "Ezkila" ta gure lehenengo garaietan sortuak. Liburua bukatu aurretik zuri ikustaldi bat egiteko asmoan naiz, baina oharrek nahi nituke hemen eduki, datorren maiatzaren lehengoa tarako.

Bihotz-bihotzez,

*Aita Lafitte*